

# Arrasate

P R E S S

1996ko  
Urriak 4  
334. zenb.



## Maritxu Kajoi '96



## Zure OPEL banatzailea ARRASATEN



*Maritzen eguna  
elegante pasatu!*



## TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3 Eskatu Pabilioia Tfnoa: 79 05 86 ARRASATE

*Eskapulaixue  
kotoxien ta ibili munduen!*



## VENTANAS SAN MIGUEL

**Ventanas San Miguelekin...  
Denean irabaziko duzu.**


**Erosotasunean irabaziko duzu.**

**Aurrezpenean eta energian  
irabaziko duzu.**

**Isolamenduan irabaziko duzu.**

**Konfortean irabaziko duzu.**

**Iturriotz, 24  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 78 10**



*Etonki gurena!  
Denean irabaziko duzu!*

# Maritxu Kajoi

**D**uela 19 urtetik hona urriaren lehenengo ostiralean ospatzen da Maritxu Kajoi.

San Joan Bataiatzailea Parrokiaren kanpoaldean zegoen Errosarioko Amabirjinari diosala egitetik hasi zen kontua. Eta eliztar batzuei ez zitzaien ongi iruditu, Amabirjina, jainkotiaria, gizakietara honela hurbiltzea "Maritxu nora zoaz..." abestuz. Bere izaera sakratuari dagokion begirune eza gisara jo zuten garaiko herritar batzuk. Baina geroztik sartua da herriko ohituretan.

Toki askotan ahaztu egin dute jaizaleak festari izena ematen dion santua. Hemen, urtero gogoratzen dute: Amabirjinari "Maritxu nora zoaz" abestuz; bere ohorez eskapularioak salduz; mirariren bat eginez (ura ardo bihurtu, dirua banatu,...)...

Eragile askoren emaitza da festa hau holako indarrez ospatzea:

- Irudimena eta lanerako gogoia duen batzordea,
- Salmentarako aukera ederra duten dendari, tabernari eta ostalariak.
- Martxa nahi duen jendea, gaztea eta ez hain gaztea.
- Ikasbidaiarako pezeta batzuk atera nahi dituzten ikasleak.

Txikiteroen eguna ospatzen dela eta festa honek berekin dakar edatearen goraiamena. Zer esan honetaz? Bada ederra dela trago bat edo beste jaterakoan egitea. Baina tristura ematen duela bere buruaren jabe ez dela, kalean balantzaka, hainbeste jende ikustea.

Bestaldetik, guztia ez da festa eta algar Maritxu kajoiko ospakizunean: Itzela izaten da biharamunean kaleetan egoten den kiratsa. Eskerrak hala ere tajuz garbitzen dituzten kaleak.

Eta festa honetarako hain bereziak diren jantziei buruz, esatekoa da izan dituztela aldakuntzak haserako urteei erreparatu ezker. Gehienbat, gazteak dira itxuraldatzen direnak. Hasieran aita-amen edo eta aiton-amonen jantziekin kalera irtetzea zen kontua. Orain ordea elegante joatea da kontua. Urte zahar egunetan kotiloi etan erabili ohi diren jantziak ikusten dira kalean. Hemen ez dago Karnabaletako konturik: Orduan nahikoa da zerbaitetaz moztortzea. Hemen, beharrezkoa da ongi jaztea.

Eta jantzia, ezin da aurreko urtekoaren berdina izan. Orduan soinekoa bazen, orain txala, eta sonbrerua, edo enkaje batzuk,...

Afariak kanpoan egitea ere ohizkoa da egun honetan.

Beraz, ez da edatea bakarrik, baizik eta kanpoan afaltzea eta egunerako elegante jaztea. Eragin handia duen festa da ekonomi alorrean. Herritarren parte hartze handia izaten da festa honetan, eta kanpotik ere jende asko erakartzen du.

Esan genezake Arrasaten Udazkeneko festa bihurtu zaigula Maritxu Kajoi. Aukera aproposa lagunekin jan, edan eta dantzatzeko. Eta ongi pasatzeko. Eta behin berriz bizipoza dastatzeko.

**RUFINA OLASAGASTI**



## TTUKUN

Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Koloretan fotokopiak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE  
Tfnoa: 79 46 62

# Memesa

## 79 42 22




**ARRASATEKO UDALA**

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

### • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Alberto Garro eta Kaitin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondo, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rifa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu, Erdu-AEK euskaltegia. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.  
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko ilustrazioa:** Mario Egües

# UGARTE

**Industri  
hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00  
Telefax: 793412

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84  
ARETXABAETA



Alkoholarekin arazoak  
dauzkazu?

Agian,  
"Alkoholiko  
Anonimoek" lagundu  
ahal dizute!!

## Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa  
(Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38

## TXINPARTA GOZOTEGIA

Zorionetarako  
poltsak.  
Sandwich-ak

Kontzeziño kalea, 6  
ARRASATE

## Sabin Berezibarren oroimenez

Apirila 14an jaio zinenetik,  
Errepublikanoa.  
Eguneroko borrokalaria.  
Beti prest. Ausarta.  
Ixilean joan zara.  
Gure gogoan betirako leku bat  
izango duzu.  
Sabin rebelde. Abertzale.

**ZERRAJERAKO LAGUNAK.  
KARMELO ZUBILLAGA**

## Lakuntza jaunari erantzunez

**E**gia esan ez dakit nola  
eman hasiera eskutiz  
honi. Badakit ez dela ikasle  
frantziar horrena Euskal  
Herriak jasaten duen erre-  
presioaren errua, baina zure  
jarrera "objetiboa" guztiz da  
nazkagarria, itxurakeria bes-  
terik ez baita eta ildo edo pent-  
samolde politiko zehatzen  
hitzak besterik ez baitira bote-  
rearenak.

Zuk Eskola Politekniko-  
ko zuzendari bezala ezin deza-  
kezuna egin inoiz zera da: bat-  
zuren alde ateratzea eta bes-  
te batzuek berriz, guztiz ahaz-

tea. Hain justu, hau da zuk  
egiten duzuna.

Gure Euskal Herri hone-  
tan ehundaka izan dira jipoi-  
tutako gazteak polizia ezber-  
dinen esku, Arrasaten ere  
gertatu izan dira horrelako-  
ak ikasleen manifestazioe-  
tan, Eskola Politeknikoko  
ikasleak ere jipoituak suer-  
tatu direlarik. Noizbait zer-  
bait egin al duzu egoera  
hauek salatzeke edo ikasle-  
ak babesteko? (erantzuna  
ezaguna dela uste dugu).

Utzikeriaz edo hobeto  
esanda, nahita, zuk beti egin  
duzu bide politiko baten apo-  
logia, atzerakoien eta regio-  
nalismoaren apologia hain  
zuzen ere. Zu aktiboki izan  
zara autoritarismoaren isla-  
da Eskola Politeknikoko  
ikasleei greba eskubidea  
ukatzean, hain zuzen ere  
presoen alde egin nahi izan-  
dako azkena. Azken finean,  
zu ere herri honetan gataz-  
karen erantzule zara, politi-  
kero, polizia, etabarrekin  
batera.

Amaitzeko, zu ere ikas-  
le frantziar horri egin diote-  
naren erantzule zara, lagun-  
du duzulako preso, depor-  
tatu, errefuxiatu eta orohar  
Euskal Herriaren egoera isil-  
tzen eta ez konpontzen.

**ARRASATEKO IKASLE**

ABERTZALEAK

## Dagokionari

**Z**atarrak direla pentsatu-  
ko dute batzuk, beste  
batzuk traba asko egiten  
dutela eta beste askok ez  
dakit zer, baina bere neurrian  
beharrezkoak direla ia denok  
pentsatzen dugula sinetsi  
nahi dut.

Gaur egun, nahiz eta  
espazio aroan murgildurik  
egon, oraingoz ez diogu  
eman erantzun zuzena zabo-  
rren arazoari. Horregatik  
birziklaketa gero eta gehia-  
go landu behar da, eta zorio-  
nez egunero ikus daiteke  
ekologi kontzientzia heda-  
tzen ari dela -nahi genuke-  
ena baino astiroago- gure  
gizartean.


Amaitzeko, hona hemen  
galdera: nola birziklatu gure  
eskuetan erraz daukaguna -  
papera, kristala...- ontziak  
erretzen badituzte?

**Juan Jose Zabarte**

## FELIPE MADINA

**ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 78



## Era guztietako artikuluvak ileapaindegietarako

Kontzeziño, 4 behea  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 78 09



## Karlos Oianguren Bitxitegi Tailerra

Biteri kalea, 13 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 34 26



# Gogoratzen duzun Maritxu Kajoirik onena?



**Visi Garcia Etxekoandrea**  
(39 urte)

Maritxu Kajoi jaiak ez dit oroitzen onik ekartzen, orain 5 urte aita hil zitzaidan eta.



**Asier Lasa Ikaslea**  
(22 urte)

Denetan ondo ibili naiz. Batzuk besteak baino hobeto egoten dira, jende larregi etortzen delako edo mugimendu gehiago dagoelako, baina denak antzera. Tamainan behar da jendea.



**Begoña Balanzategi Langilea**  
(37 urte)

Badira gutxienez zortzi urte irteten ez dudana. Gogoratzen dut iturriak ardoa bota zuen urtea. Dena den, gehien jantziak gustatzen zaizkit.



**Gaizka Agiriano Langilea**  
(32 urte)

Denak dira onak, tremendo pasa ditugu eta. Alaba jaio berri zela eta, urte batean etxean geratu ginen, eta sekulako penaz geratu gainera.



**Angel Espinosa Langilea**  
(44 urte)

Ez naiz sekula irten Maritxu Kajoi egunean, ez zait tabernetan ibiltzea gustatzen. Ondo egongo da gustatzen zaienentzat.




**Olga Santa Teresa Langabezian**  
(20 urte)

Berezi bereziki ez dut bate-re gogoratzen. Beno, orain 2 urte oso ondo pasatu nuen, baina ez zerbait berezia gertatu zelako; beste barik, ondo pasatu nuen.



**Maite Iturbe Langilea**  
(37 urte)

Orain 8/9 urtekoak gogoratzen ditut, ondo pasatu genuen, kuadrilako giroan ibiltzen ginen eta.



**Asier Agirreurreta Ikaslea**  
(22 urte)

Ez dakit. Urtero pasatzen dut ondo, kalera irten eta lagunak egoten gara elkarrekin.

**URRATS**  
**AHOLKULARITZA**

GARIBAI, 3  
Tfnoa: 79 87 74  
ARRASATE

**MARKO-JARTZEAK**

**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

**Txitxinpe**  
Berezitasunak:  
Kafea, ardoa, urdaitegia,  
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit .....79 53 00  
 Iguualtorioa .....79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) .....79 39 00  
 (emakumeak) .....79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua .....79 90 11

**Gurutze Gorria**  
 Bergara .....76 55 76

**DYA**  
 Antzuola .....76 62 91

**Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdiak) .....79 13 57  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria .....77 03 46  
 • Espezialitateak .....77 05 78  
 77 12 64  
 Oñati .....78 08 52  
 Eskoriatza .....79 98 58  
 Aretxabaleta .....79 74 58  
 Aramaio .....(945) 45 51 16

**Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulanziaz .....45 87 44

**Udaltzaingoa**  
 Oñati .....78 04 11  
 Bergara .....76 14 69  
 Arrasate .....79 14 39  
 Aretxabaleta .....79 10 52  
 Eskoriatza .....088

**Ertzaintza**  
 Arrasate .....79 71 99

**Suhiltzaileak**  
 Udal taldea .....79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua .....79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea .....088

**Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) .....79 09 00  
 Elektrizitatea (iberduero) .....12 01 62  
 Gasas .....900 40 05 23  
 79 78 44  
 79 76 78

**Garraioak**  
 Taxiak .....79 12 22  
 P.E.S.A. ....79 14 19

**Hirugarren adinekoendako zentruak**  
 Iturbide Egoitza .....79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza .....79 81 57

**Kontsumitzailearendako informazioa**  
 KIUB-OMIC .....79 51 55

**Monterrongo liburutegia**  
 Monterron .....77 01 05

**Irratia**  
 Arrasate Irratia .....79 58 77

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Ostirala 4**

10ak arte: Corcuera, Musakola. Egunez eta gauzez: Puy, Bergara.

**Larunbata 5**

10ak arte: Irizar, Erguin. Egunez eta gauzez: Cuellar, Bergara.

**Igandea 6**

10ak arte: Amezua, Santamain. Egunez eta gauzez: Cuellar, Bergara.

**Astelehena 7**

10ak arte: Ruiz, Maala. Egunez eta gauzez: Estella, Bergara.

**Asteartea 8**

10ak arte: Morales, San Andres. Egunez eta gauzez: Mozos, Bergara.

**Asteazkena 9**

10ak arte: Azkoaga, Ferrerías. Egunez eta gauzez: Camacho, Bergara.

**Osteguna 10**

10ak arte: Español, Iturriotz. Egunez eta gauzez: Puy, Bergara.

**4 OSTIRALA**

• **ZINEA**  
 "Independence day" 7etan eta 10etan.

• **MARITXU KAJOI EGUNA**

• **UNTZILAKO JAIAK**  
 Gaueko 9etan auzo afaria. Ondoren bertsolariak: Liza-so, Egaña eta trikitilariak.

**5 LARUNBATA**

• **ZINEA**  
 "Independence day" 5etan, 7etan eta 10etan.

• **UNTZILAKO JAIAK**  
 Eguerdiko ordubetean meza. Arratsaldeko 5.30etan ume-entzatz antzerkia. Gaueko 10.30etan "Lotxo" taldearekin dantzaldia. Gaueko 11etan Murumendi elkarte-ko XV. Bolo txapelketa.

**6 IGANDEA**

• **ZINEA**  
 "Independence day" 5etan, 7etan eta 10etan.

• **UNTZILAKO JAIAK**  
 Eguerdiko 12etan meza eta ondoren trikitilariak.

• **KILOMETROAK 96 ELGOIBARREN**  
 "Banoa, banixe Euskaraz bai horixe" lemapean kilometroak 96 Elgoibarren. AEDK autobusa antolatu du. Irteera goizeko 9.30etan Zaldibarko pilotalekutik.


• **AL ANDALUS KULTUR TALDEAREN BATZAR OROKORRA**  
 Al Andalus taldearen batzar orokorra. Lehen deialdia goizeko 10etan eta bigarrena 10.30etan. Batzarra Al Andalus taldeak Zigarrolan duen lokal berrian burutuko da.

**NAFARROA OINEZ 96**

**Urriaren 13an Etxarri Aranazen ospatuko da Nafarroa Oinez. Aurten Andra Mari ikastolari egokitu zaio antolatzea eta laguntza behar dutenez horretarako norbait gertu balego izena eman dezala AEDn.**

**III. TENIS TXAPELKETA**

III. Tenis txapelketan parte hartu nahi duten lagunek urriaren 8a arte izena emateko aukera izango dute. Txapelketaren ordutegia: astelehenetik ostirala arte goizeko 10etatik eguerdiko 12etara. arratsaldez 3etatik 6.30ak arte. Izena emateko eta informazio gehiagorako Musakolako kiroldegira zuzendu edo 79 04 27 zenbakira deitu.



**PERKUTSIO IKASTAROA**

Perkutsio ikastaroa Gaztetxean ostegunero arratsaldeko 5etatik 7ak arte. Irakaslea: Iñaki Bruña. Tresnarik ez dutenak ere joan daitezke.

**HASERAKO YOGA IKASTAROA**

Urriaren 7an haserako Yoga ikastaroa hasiko da Jose Luis Iñarra 28-Bn dagoen lokalean. Ikastarok azaroaren 7a arte iraungo du. Irakaslea: Antonia Nogueiras. Klaseak astelehen eta asteazketan emango dira goizeko 9.45etan eta arratsaldez 6.30etan eta 8.30etan. Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta.

**7 ASTELEHENA**

- **ZINEA**  
"Independence day" 7etan eta 9.30etan.
- **ERAKUSKETA MONTERRO-NEN**  
Udalatxen gurutzeta jarri zela 25. urteurrena dela eta, argazki erakusketa Monterronen urriaren 7tik 12ra. Orduetgia: egunero arratsaldeko 6etatik 8ak arte. Larunbata eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

**8 ASTEARTEA**

- **ZINEA**  
"Independence day" 7etan eta 9.30etan.
- **OSASUN ESKOLAREN HASIERA**  
Klaseak astearte eta ostegunetan emango dira arratsaldeko 7.15etatik 8.30etara. Iraupena abendura arte. Irakaslea: Jose Luis Abuin. Klase teorikoak, praktikoak eta tailerrak. Tokia Natura Enea Jose Luis Iñarra 18 zenbakia. Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA**  
Udalatx tontorrean dagoen gurutzeta jarri zela 25 urteurrena dela eta, diapositiba emanaldia ASA elkartearen eskutik. Monterronen arratsaldeko 7etan.

**9 ASTEAZKENA**

- **EUSKALANEN BATZARRA**  
Euskalan elkartearen batzar sortzailea arratsaldeko 7etan Amaia antzokian.

**10 OSTEGUNA**

- **ZINEA**  
"Independence day" 7etan eta 9.30etan.
- **ZINE KLUBA**  
"Tesis" Amaia Antzokian gaueko 9.30etan. Sarrera 400 pta. eta gazte txartelarekin 350 pta.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA**  
Udalatxi buruzko diapositiba emanaldia ASArek eskutik Monterronen arratsaldeko 7etan.

**AEK EGUNA DONAPALEUN**

**Urriaren 20an AEK eguna ospatuko da Iparraldeko Donapaleu herrian. Arrasateko AEKk autobusa antolatu du, beraz joateko interesa duzuenok izena eman urriaren 17a baino lehen, AEKren euskaltegian edo 77 03 69 zenbakian.**

**PIANO KONTZERTUA**

Urriaren 11an, ostirala Amaia Epelde pianojolearen kontzertua Arrasate Musikaleko aretoan arratsaldeko 7etan.

**EKIN EMAKUME TALDEAREN IKASTAROAK**

EKIN elkarteak hiru ikastaro antolatu ditu eta datorren astean jarriko dira abian. Saloi dantzen ikastaroa asteartean arratsaldeko 3.15etatik 4.45etara. Hasiera urriaren 8an. Euskal kanten ikastaroa asteartean urriaren 15etik aurrera. Orduetgia: arratsaldeko 6etatik 8etara. Eskulanen ikastaroa asteazkenetan arratsaldeko 3.30etatik 5.30etara eta 6etatik 8ak arte. Ikastaro hauek guztiak AED elkartearen egoitzan burutuko dira. Izena emateko edo argibide gehiagorako deitu 77 12 28 zenbakira.

**DANTZA KARIBIARRREN IKASTAROA**

**Azaroaren 11tik abenduaren 11ra, astelehen eta asteazkenetan dantza karibiarren ikastaroa Musakolako saloian. Orduetgia: arratsaldeko 7.30etatik 9.30etara. Irakaslea: Julio Lantigua. Prezioa: 4.000 pta., ikasle eta langabe-tuentzat 2.500 pta.**

**FRUITU TXIKIEN IKASTAROA**

Deba Garaiko mendi Nekazaritza elkarteak fruitu txikien ikastaroa antolatu du. Ekoizpen bide berriak aztertzen ari diren base-ritarrei zuzenduta. Orduak: 20 teoria eta 5 praktika. Tokia: Bergarako Nekazal etxea, "Urteaga kalea 23. Informazio gehiagorako deitu 76 25 47 zenbakira.

**LAN-POLTSAK**

Arrasateko udalak, sortzen diren aldi-ko premiei erantzun ahal izateko, hainbat "lan-poltsa" osatzeko deialdia egingu du.

- **Administrari laguntzaileak.**
- **Udaltzain laguntzaileak.**
- **Liburuzain laguntzaileak.**

Oinarriak udaletxean jaso daitezke. Izenak emateko epea urriaren 14an, astelehena, bukatuko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila

# Pakete eta dokumentuen garraio urgentea.



Bizkaia Etorbidea, 16 behea  
20.500 ARRASATE  
79 92 77

Ondo pasau Maritxutan!  
Gurekin seguru ondo helduko zarela etxeko ateraino.

## JUBILATUEN KANPAINA



Urria - Azaroa 96

**MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA**

**MULTIOPTICAS EIBAR**

Paregabeko  
prezioak

KRISTALDUN  
BETAURREKOAK  
**7.500**

BETAURREKO  
BIFOKALAK  
**10.800**

LENTE  
PROGRESIBOAK  
**17.500**



Hurbil zaitez

*Luxozko  
barometro  
Ien zozketa*

Ibargarai, 16 - BERGARA  
Tel. 76 15 75

Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
Tel. 79 29 95

J. M. Barandiaran Enp. - ORDIZIA  
Tel. 88 99 88

Bidebarrieta, 2 - EIBAR  
Tel. 20 05 22



## EKIN EMAKUMEAK Elkarteak antolatutako ekintzak:

### ■ SALOI DANTZA IKASTAROA

- Eguna: astearteetan, urriaren 8an hasita.
- Orduetgia: 3,15tik 4,45ra.

### ■ EUSKAL KANTEN IKASTAROA

- Eguna: astearteetan, urriaren 15etik hasita.
- Orduetgia: 6,00etatik 8,00etara.

### ■ ESKULAN IKASTAROA (Gantxilloa, puntua, puntokruza eta bainika)

- Eguna: asteazkenetan, urriaren 15ean hasita.
- Orduetgia: 3,30tik 5,30etara edo 6,00etatik 8,00etara.

Izena emateko edo  
informazioa jasotzeko  
deitu lehenbailehen  
77 12 28 telefonora.

Honetaz gain urriaren 16an arratsaldeko 6etan eta AEDko lokalean (Pablo Uranga, 4) Alberto Iturbe sendagile nutrizionistak hitzaldi interesgarria eskainiko du: "Nutrizioa Euskal Herrian. Ondo jaten dugu? Zer egin dezakegu hobeto jateko?"



**Galindo non-grato**


Ezker Batuaren, Herri Batasunaren eta Eusko Alkartasunaren aldeko botoekin ostiraleko plenoak onartu egin zuen Galindo non-grato edo ez atsegina izendatzea. Euzko Alderdi Jeltzaleko zinegotziak, berriz, abstenitu egin ziren non-grato izendatzea eskatzen zen puntuan. Alderdi sozialistakoek eta Partidu Popularrekoak aurka bozkatu zuten.

Bestalde, Senideak elkarteak aurkeztutako mozioaren alde bozkatu zuten zinegotzi guztiek PPkoak kenduta. Presoen Euskal Herriratzea eskatzea zuen helburutzat mozio horrek.

Ferixalekuaren desafektazioa eskatzen zuten puntua ere aurrera atera zen HB, EAJ, EA eta PPren aldeko botoekin. PSE-EEkoek eta EBkoek aurka bozkatu zuten.

**Hilda aurkitu bere etxean**

Irailaren 26an, joan den ostegunean, 60 urteko gizon bat hilda aurkitu zuen Ertzantzak bere etxean.



**Gazte arrasatearra istripuz hil**

Astearte eguerdian Vicente Irigoien Arizabaleta, 33 urteko arrasatearra, hil zen Etexzarretako kurban izandako istripuan eta berarekin zihoan anaia larri dago. Bergarako norabidean zihoan trailer bati kurba hartzean irrist egin zion erremolkeak, eta beste karrilera pasatu zenean gertatu zen istripua. Ondorioz, kontrako norabidean zetorren furgonetaren aurrealdea txikituta gertatu zen. Arizabaleta anaiak izeneko furgonetan bi arrasatearrak zetozen.

Joan den zapatuan, bestalde, 81 urteko emakume arrasatearra hil zen auto batek harrapatu ondoren. Istripua Araba Etorbidean gertatu zen.

Hildakoa aurkitu baino lehenago familiarteko batek deitu zuen Ertzantzara, hildakoarekin harremanetan jartzeko ahaleginetan zebilela baina horrek ez ziola erantzuten esanez.

Ertzainak etxera joan eta J.C.M. hilda aurkitu zuten. Arrazoi naturalengatik hil zela uste bada ere epailea ikerketak egiten ari da, eta oraingoz sumarioa sekretupean dago.

**Arrasatearrek istripua Alderdi Egunean**

Amaia Aspiazu, Jose Ramon Okina eta Antxon Azurmendi arrasatearrek istripua izan zuten igandean Salburuan, desmontatzen ari ziren txosnaren zati batek behean harrapatu zituenean. Istripua ez zen larria izan, baina Amaiari 22 puntu eman zioten besoan eta beste biak ospitalera eraman zituzten. Antxon Azurmendiri hurrengo egunean eman zioten alta, eta Joxe Ramon Okinari ostegunean eman behar zioten.

**JAIOTZAK**

- Jon Amutxastegi Abad. Irailaren 20an.
- Jone Urria Elkoroiribe. 20an.
- Lide Galdos Balanzategi. 23an.
- Ane Kortabarria Fernandez. 27an.

**EZKONTZAK**

- Alberto Agirre Olaetxea eta Maria Asunción Ibarrodo Garai. Irailaren 28an. Elizatik.

**HILDAKOAK**

- Juan Rafael Coronado. Irailaren 13an. 59 urte.
- Cecilia Lafuente Vallejo. 22an. 92 urte.
- Sabino Berezibar Etxaluze. 27an. 63 urte.

**Portugaletik inportazioak!**

**Prezio ezin hobeak!**

**Konfidantza osoaz!**


Olarte, 6 Tfnoa: 79 25 71 ARRASATE  
 Herriko Plaza, 10 Tfnoa: 79 59 78 ARETXABALETA

Biteri, 13  
 Tfnoa: 79 21 71  
 ARRASATE

**Clarks**  
 Banatzaile ofiziala

**Yoaz**  
 oinetakoak

Barrenkale, 9  
 Tfnoa: 76 22 86  
 BERGARA



Haritz Azkarraga\*

## Zaldibarko Futbito Txapelketa

**H**asiera batean herri txapelketa bat bezala jaio zen. Zaldibarko Futbito Txapelketak aurten bere zazpigarren urtea burutzen du bere aldi berri honetan. Poliki poliki, ume txiki bat bezala, handituz joan eta gaur egun heldutasun osoa lortu eta Arrasaten instituzio bat bilakatu dela ezin ukatu daiteke. Handituz joan den heinean, jokuaren maila eta jokalarien teknika izugarri hobetu da; honekin batera ikuskizuna, konpetibitatea, irabazteko gogo, iskanbilak...

Askotan galdetu izan diot neure buruari zein izan daitekeen Zaldibarko Futbito txapelketaren arrakastaren arrazoia, ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula zortzi hila-betetan zehar, astebururo 1.100 jokalarik inguru futbitoan ikustea. Bururatzen zaidan erantzuna bat bakar

ordea, azken finean Zaldibarko izatea definitzen duen erantzuna: partaidetza.

Eta puntu honetara helduta hiru partaidetza mota definitu beharra daude, hirurak ezinbestekoak eta batak besteak gabe ezer egin ezin duena. Jokalariak dira Txapelketaren izana definitzen duten zutabeetako bat; hauek dira askotan ikuskizuna eta beste zenbaitzutan lotsa ematen duten Zaldibarko "Lehengai". Hauek gabe, jai. Ikus-

leak berriz, txapelketari gaitza eta bizitasuna jartzen diotenak, ezin baititugu inolaz ere ahaztu astebururo, egiten duen eguraldia eginda ere, Zaldibarren biltzen diren "fan inkondizional" horiek. Eta hirugarrenik, Herriko Era-kundeak; Udala, ARKO eta kolaboratzaileak batez ere.

Hiru zutabe hauen koktela da, beraz, Zaldibarko Futbito Txapelketa, Euskal Herriko txapelketa handiena bilakatu eta kanpotar guztiak txundituta uzten duena. Hiru zutabe, ezinbestekoak direnak, hiru hankako ahulki bat bezala, batek huts eginez gero guztia hankaz gora doana. Partaidetza: honek definitzen du txapelketa bat, guztiak ezinbestekoak garenak, guztiak beharrezkoak... azken finean Zaldibar Handi egiten dutenak. Urte askotan horrela jarrai dezala.

.....

**"Partaidetza da  
Zaldibarko  
Futbito  
Txapelketaren  
arrakastaren  
arrazoia"**

\* ANTOLAKUNTZA TALDEKOA

## USTEAK USTE

### AUTODETERMINAZIOAREKIN BUELTAKA

Zutabe hau betetzeko gaia aukeratzea ez da batere erraza izaten. Oraingo honetan irratian politikari espagnolista bati eginiko elkarrizketak eman dit behar nuen pista. Nazka ematen didate entzundako hitzek. Eta hitz horien atzean egon daitezkeen intencioek eta indarrak.

Gure Euskal Herria honetan autodeterminazioari buruz hitzegiteak, eta are gehiago autodeterminatzeko eskubidearen aplikatzeak, gure gizartea zatituko lukeela, entzun nion politikari horri. Ez al dago nahiko zatiturik dagoeneko? Ez al daude alde batean urteak joan urteak etorri gai horri buruz hitzegiteko une egokirik ez dela argudiatuz herri honen eskubideak zapaltzen ari direnak, eta beste aldean, berriz, zapaldurik sentitzen garenok?

Hauteskuendak direla eta egunero ari garela autodeterminatzen, zioen politikari horrek. Hitz horien atzean kolonialisten jarrerak ezkutatzen dira, hainbat eta hainbat zapaldurik egon diren herrietan egoera berdina ikusi baitugu.

Gehiago esan zuen. Autodeterminazioa gauzatu ezker, independentziaren alde dauden batzuk emaitza ez luketela onartuko beren proposamena irtenko ez balitz. Hori ikusteko dago. Ikusitako gauza bakarra autodeterminazioaren aurka dauden inposizioa da une honetan. Eta jarrera horrek merezi duen kalifikazioa zapaltzaile da.

Noiz arte egon behar dugu ixilik entzundakoa entzun eta gero? Noiz arte gure politikarien salatze beldurra? Noiz arte luzatu egoera hau?

Ezin konformatu orain arte egindakoarekin. Herri honek irtenbide bat behar du. Eta lehenbailehen. Beranduegi izan baino lehen. Egutegi bat behar du ezagutu herri honek.

Nork emango digu, bestela, hurrengo hauteskundera botatzera joateko arrazoren bat?

JOSE RAMON ELORTZA

**ZUK NAHI  
Taberna**  
Pintxo goxoak  
giro onenean!

Erdiko kale  
Tfnoa: 79 79 26  
ARRASATE

*Sili Sili*  
Martxa eta estilo  
handiko erropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 81 82

**BAZAR**  
TOKI ON

**ELEKTRONIKA  
ARTIKULUEN  
SALMENTA**

J. Carlos Guerra, 1  
Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



Ertzantzak, berriz, beste bertsio bat kaleratu du ostiraleko ekintzen inguruan.

## Alkatearen atxiloketa salatu du gobernu batzordeak

Udaleko gobernu batzordea osatzen duten alderdiek, HBk eta EBak, idatzia atera dute Xabier Zubizarretaren atxiloketa salatzeke. Oharrean azpimarratzen denez, joan den ostiralean gertatutakoa grabea da eta alkateak jasan zuen tratua guztiz desegokia. Bukeraren horrelako istiluen aurrean irtenbideak elkarrekin bilatzearen aldeko apustua egiten da. Bestalde, Ertzantzak emandako bertsioa guztiz faltsua eta errealitatearekin bat ez datorrena dela esaten da.

Asteheneroko gobernu bileran alkateak Gudari Eguneko gertakarien berri eman zuen, eta oharraren hasieran horien kontakizuna egiten da: "Gudari Egunean egin zen manifestazioa Garibai Etorbidera heldu zenean, ertzainak azaldu eta ekintza geldiarazi zuten. Alkatea ertzainekin hitzegiten hasi zen Arrasateko alkatea zela esanez, eta manifestazioa era baketsuan burutzeko eskubidea zutela aldarrikatuz. Ertzainekin izandako eztabaidaren ondoren, alkatea furgonetan sartu eta Ertzaindegira eraman zuten". Jarraian basean gertatutakoaren berri ematen da:

"atxilotuari eskubideak irakurri ondoren, alkateak ertzainburuarekin hitzegitea eskatu zuen eta Arevalo azaldu ondoren, inolako deklaraziorik egin barik aske utzi zuten".

Ertzantzak, berriz, beste bertsio bat kaleratu zuen ostiraleko gertakarien inguruan. Ertzantzaren arabera, Garibai inguruan errepidea moztu zuten manifestariak, eta trafikoa ez mozteko esatera aurreratu zirenean, alkateak iraindu egin zituen eta ertzain bati ere aurre egin zion.

Bestalde, Xabier Zubizarretak atxilotu zuten agenteen aurkako salaketa jarri du Bergarako epaitegian. Salaketan ageri denez, inongo arrazoirik gabe atxilotu zuten.

Zapatu gauean istiluak izan ziren Aretxabaletan ere. Ezezagun batzuek su eman zieten bi edukiontziri eta Ertzantzak kargatu egin zuen. Ondorioz, 18 urteko arrasatear batek, H.Zak, pelotakada bat jaso zuen begian. Aretxabaletako Jai Batzordeak idatzi bat atera zuen Ertzantzaren jarrera neurri gabekoa izan zela esanez.

### Arrasateko elkarteei dirulaguntzak

Gizarte eta ongizate batzordeak banatu die herriko elkarteei urtero ematen dituen dirulaguntzak.

Hies Ekimenak 1.460.000 pezeta jasoko ditu, Askagintzak 200.000, Komite Internazionalistak 150.000, Harremanek 150.000, Gizakia Helburu taldeak 250.000, Behar Izanak 35.000, AFA-PAk 35.000, Chernobilek 100.000, Musakolako Zaharren Etxeak 512.000, Uribarrikoak 413.000 eta Toki Argik 75.000.

### Udalaren lan eskaintza

Arrasateko Udalak hiru langile kontratatu nahi ditu: administrari laguntzailea, udaltzain laguntzailea eta liburuzain laguntzailea. Oinarrriak Udaletxean jaso daitezke, eta izena emateko epea urriaren 14an bukatuko da. Bestalde, Udako Ingurugiro Eskolan prestatzeko lan-kidetza beka ere kaleratu du Udalak. Beka horri buruzko informazioa Udaletxeko Hezkuntza Sailean jaso daiteke.


### Aparkalekua zabalik

Ostiral gauean irekita egongo da Lau Bideko aparkalekua. Maritxu Kajoi dela eta erabaki da gaez zabalik edukitzea.



## Maritxu Kajoi egunean ZATOZ GUGANA!

Ferrerias, 12 • ARRASATE • Tfnoa: 79 56 04



PPk hainbat aldaketa egin nahi du hirigintza alorrean.

## EUDEL eta Udala hirigintzan egin nahi diren aldaketen aurka

EUDELeK, Euskadiko Udalen Elkarteak, agiria bidali du Udalera PP alderdiak lurzoru alorrean ezarri nahi dituen neurri liberalizatzaileen inguruan. Arrasateko Udalak onartu egin ditu idatzian esaten direnak.

PPk lege urbanizagarriaren barruan ez ditu lursail programatua (urbanizatu daitekeena) eta ez programatua (Udalak erreserba modura uzten duena) berezi nahi, eta era horretan, dena da urbanizagarria. Neurri horrekin lurzoruaren eskaintza gehitu eta merketu nahi du PPK, baina EUDELeN ustez, neurri hori promotoreen aldekoa eta Uda-

len kontrakoa da. Gainera, gero eta zailagoa izango da etxebizitza merkeak eskaintzea eta iharduera ekonomikoetarako lurzoria uztea.

Horrez gain, PPK egin nahi dituen aldaketekin, lurraren jabeak hirigintza ekintzak egiteagatik gizarteari utzi behar dion kopurua txikiagoa izango da. Euskadiko Udalen Elkartearen arabera, plusbalia horiek lurzoruaren jabeetara pasatuko dira.

EUDELeK Kongresuko alderdiekin harremanetan jarri asmo du lege proiektuaren puntu horiek bertan behera uzteko.

## Fagorrek eta Ikusik ez dute bat egingo

Fagor Elektronikak eta Ikusi enpresa donostiarak ez dute sozietate berria eratuko.

Uztailean Fagor Elektronikako bazkideek asanblada egin eta Ikusirekin bat egitea onartu zuten. Orduetik aurrera, berriz, ez da posible ikusi bat egitea. Batez ere, aktibitate guztiak bateratzeko prozesuan ikuspegi desberdinak daudelako hartu da erabakia. Bat egitearen helburua, telekomunikazio alorreko produktuak komertzializatu eta saltzea zen. Era berean, nazioartean indarra hartu nahi zen.

## Goio Etxaberi bederatzu urte


Eginek kaleratutako informazioaren arabera, Goio Etxabe arrasatearrari bederatzu urteko kartzela zigorra ezarri dio Entzutegi Nazionalak: zazpi urte ETArekin kolaboratzeagatik, eta bi urte armak edukitzeagatik. Irailaren 16an epaitu zuten arrasatearra. Etxabe 1995eko apirilean atxilotu zuten.




**LENIZ**  
Garagardotegia

*Dotere jantzi eta ondo ibili!!!*

Iturriotz, 8  
Tfnoa: 79 22 29 ARRASATE





AEK-ERDU euskaltegian ia 200 lagunek egin dute izenematea.

## Euskaltegiek eutsi egin diote matrikula kopuruari

Azken urteotako joerari jarraituz, aurreten ere ez da aparteko gorabeherarik gertatu herriko euskaltegien matrikulazio kopuruan.

AEK-ERDU euskaltegian zertxobait igo da ikasleen kopurua, eta ia 200 lagunek egin dute izenematea. Euskaltegi honetako arduradunek 200 laguneko kopurua lortuko dutela uste dute, hasieran hori jarri zuten helburutzat eta. Oskar Elizburu irakaslearen iritziz, kanpaina ondo joan da baina Arrasate moduko herri batean jende gehiago animatu beharko litzateke euskara ikasteko.

Udal Euskaltegian 300 lagunek hasiko

dute ikasturtea, eta horrela, 24 talde eratu dira. Joxerra Agirreurretak esan bezala, azken urteotako kopuruari eutsiz hasieran jarritako aurreikuspenak bete egin dira. Udal Euskaltegiko zuzendariaren arabera, azken urteetan gora egin du ikastaroetan izena ematen dutenen kopurua. Gero eta gehiago jendeak helburu jakin batzuk lortu nahi ditu eta horregatik, iraupen motzeko ikastaroak eskatzen ditu.

Bi euskaltegietan iraileko matrikulazio kanpaina bukatu den arren, aurrerantzean ere izena emateko aukera izango dute euskara ikastea erabakitzen dutenek.

## Arrasateko plano berria

Udalaren eskariz Arrasateko plano berria egin da, eta datozen egunetan planoak banatuko dira etxebitza guztietan. Guztira 7.000 plano banatuko dira dohainik, baina norbaitek jasotzen ez badu Udaletxean jaso dezake ale bat.

Planoan herriko kale guztiak eta auzoz-auzo dauden baserriak azaltzen dira. Horrez gain, arte mailan garrantzia duten eraikinen zerrenda eta intereseko hainbat telefono zenbaki ere ageri da.

Azken planoak 1985garren urtean egin zelako, eta zahartuta geratu delako erabaki zen berria egitea. Tracasa enpresak egin du plano berria.

## Oinezkoendako bidea eraiki

Uharkape eta Aldai lotzeko bidea eraiki asmo du Udalak, eta orain, zumardi horren proiektua egitea eskatu dio LKSri.

1.900.000 pezetan adjudikatu dio proiektua, eta ondoren, obrak zeinek egingo dituen erabakiko da.

**Aupa arrasatearrak!  
Aupa Maritxu!**

**YOSU HERMIK**  
VENTANAS AISLANTES

*Kalitate gorena leihuetan*

**LANTEGIA ETA ERAKUSKETA**

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



**Santamainako Toki Argi jubilatutako lagunek bidaia** bat egin zuten Logroñora San Mateo egunean. Bertan ere jubilatutako eguna ospatzen zela aitazaki hartuta autobusez abiatu ziren Errioxara. Toki Argiko jubilatutako aurten iaz baino bidaia bat gutxiago egin dute eta diruz urri

dabiltzanez bertako jubilatutako etxean bazkaldu behar izan zuten. Hala ere, egun ederra igaro zutela jakin izan dugu. Ezkerretik eskumara argazkiko lagunak: Onorio Bellido, Jose Antonio Gonzalez, Virginia Rojas, Miguel Fernandez, Carmen Lopez, Jose Ruiz eta Felisa Ortiz



**Garagartzako San Migeletan** hainbat ekintzen artean briska eta mus txapelketak antolatu ziren. Horrez gain, zozketa bat egin zen eta label produktuz betetako oterra Juan Jauregik irabazi zuen. Argazkian mus eta briska txapelketako irabazleak agertzen dira.



**Eusko Alkartasunaren 10. urtea** ospatzeko hainbat ekintza antolatu zen zapatuan Arrasaten. Lehenengo meza izan zuten San Frantzisko elizan hildako alderdikideen alde eta ondoren, Alkartetxera hurbildu ziren bazkaltzeko. Urtero moduan aurten ere omen egin zieten 80 urte bete duten alderdikideei. Omenaldia Rufina Heriz eta Maria Aierbe jaso zuten.



**Arrasateko Eusko Alderdi Jeltzaleko kideak Salburuara** joan ziren urtero bezala Alderdi Eguna ospatzeko. Eguraldi onarekin eta jai giroan bertan bildutakoek ederto pasa zuten eguna. Dena

dela, bukaera ez zen hain zoriontsua izan, arratsaldean txozna jauzi eta hiru arrasatear harrapatu zituelako. Dena dela, aipatzekoa da zaurituen osasun egoerak onera egin duela.

## OKORETEGI

## KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea ARRASATE Tfnoa: 77 03 62



**82 urteko kintoek** egun berezia izan zuten ostiralean. Egurdiko 12etan Parrokian meza entzun eta gero, 2.30ak aldera bazkaria izan zuten Batzokian. Argazkikoak

Genaro Osinaga, Isidro Gonzalez, Fidel Diaz, Pedro Zumelaga, Zosimo Olmedo, Martin Zubizarreta, David Arzamendi eta On Julian Sagasta dira.



**Garagartzako jaietan "Antena" Baserriko Uribarren familiakoek urtero elkartzeko ohitura dute. Argazkikoak Xole, Kontxita, Isabel, Rosita eta Antxoni Uribarren dira, bostak ahizpak baina ez bakarrik. Izan ere, 8 ahizpak eta anai batek osatzen dute familia. Bi ahizpa hilda daude Salu eta M. Luisa. Argazkian falta direnak beraz, Juan Mari anaia eta Karmen dira.**

Arrasateko eskubaloi taldeak antolatuta **Roberto Madinabeitia lehen memoria** burutu zen zapatuan Iturripen. Robertok gaisotasun luze baten ondoren agur esan digu aurten. Hori dela eta, eskubaloikoek bere senitartekoei omenaldi bat eskaini nahi izan diete.



#### IZEN PROPIOAK

**Patxi Montero** 29 urteko arrasatearra Herri irrartian hasi da lanean. Alberto Gorritiberea kazetariarekin batera *Goiziru musutruk* saioa aurkeztuko du. Patxi Arrasate Irratiko kazetaria izan da azken bi urtetan.

## AMI oinetakoak




OINETAKOEN AUTOZERBITZUA  
Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

## GARIBAI 5


### TABERNA

Maritxutan, giro dotere eta martxosoan egoteko, zatoz GUINNESS garagordo jaira. GOIZEKO 10ak ARTE ZABALIK, gozari goxoak zuretzat.



# LORAMENDI

*Udazkeneko  
arropa berria  
zuretako prest!*



## Kilometroak



*30 musika talde, 10 kirol ezberdin,  
5 erakusketa, 5 jolas parke, pailazoak, bertsolariak,  
erraldoiak, aerobik, dantza saioak, ponyak, iturriak, taloak, sardinak,*

*erroskillak, ogitaretekoak, patata prejitua, oilaskoak, bazkariak, izozkiak, ...*



Elgoibarho Ikastola



Ikastolen Elkartea

**Banoa, Banixe**

**Euskaraz, bai horixe**



# Maritxu

P R E S S

Maritxu Kajoi  
Eguna  
1996ko  
Urriak 4

## Egitarau osatuena

### ■ Arratsaldeko 5etan:

Auskalo taldeaz gazte-txuendako animaziñue Herriko plazan.

### ■ 6.30xetatik aurrera:

Erraldoi ta buruhaindexek herriko kalietan ziber. Eta takarraldixek animetako, eurekin izango da Oria txar-rangie.

### ■ 7retan:


Monterronen, aspaldiko partez Maritxun izendako ekitaldi modernuena ikusteko aukerie izengo da. Zerbait teknika-rik Maritxu Interneteko sarean zela sartu dauien azalduko dozkue. Aurre-rantzien, beraz, Maritxuren gainien Interneten zerbait kontsultau gure daue-nak, hemen dauko helbidie: <http://www.danka.es/maritxu>.

■ 8retan: eguneko gauzaik inportantiena, bere leku barrixen Maritxuri lore eta kantu eskaintza.

■ 11.30xetan: dantzaldixe Txinpartarekin, gure barik be gorputze mobidu eraitten dauen taldie.

■ 12xetan: Barruok eta kanpuok goxo-goxo diela, Drindots talde lazkaotarrak dantzaldixe Seberon.

■ Goixeko 6retan: Herriko plazan sokamuturre. Eki-taldi alternatibue: urteroko kantzontzilo eta kulero karrerie Malan.



Maritxu Kajoi eskaintako web orria Arrasateko Danka enpresak egin du.

## Maritxu munduan zehar Internet-en bidez

Euskal Herrian eta estuan ezaguna da Maritxu Kajoi jaia, baina aurrerantzean nazioartean ere ezagutzeko aukera izango dute. Zer dela eta? Jai Batzordearen eskariz Arrasateko Danka Multimedia taldeak Internet sarean sartu duelako jai bereziaren iragarkia. Horrela, 20. urteurrenean Maritxuk muga guztiak apurtu ditu.

Dankak prestatu duen

orrian egitarauaren berri ematen da, eta jai honetarako zein arau dauden azaltzen da. Jakina, Maritxuren irudia agertu eta desagertu egiten da eta gainera, mugitu ere egiten da Errosarioko amabirjina. Internet sarean orri hori aurkitu eta ikusi nahi duenarendako hona hemen nahi eta nahi ez markatu beharreko helbide elektronikoa: [www.danka.es/maritxu](http://www.danka.es/maritxu).

Ez dago jakiterik zenbat

lagunek egin duten bat Maritxu buruzko orrialde horrekin, baina iragartzen dena irakurri ondoren, seguru bat baino gehiago traje dotorea jantzita Arrasatera etortzeko gogoz geratuko zela.

Hogei urterekin Maritxu aro elektronikoa sartu da. Hogeitabostekin espaziora bidaliko ote dute?

Denborak esango du zein izango den Maritxuk eman-go duen hurrengo pausua.

## INO CALLEJA

# "Badirudi azken bi urteotan apur bat baretu egin dela kanpotarren etorrera"

Maritxu Kajoi batzordeko partaideetarikoa bat da Ino Calleja, hasiera hasieratik gainera. Urtez urte, ezere truke, Maritxu Kajoi jaia ondo irten dadin lan eta lan aritzen dira antolaketak batzordeko kideak. Urte-en joan-etorriak ondo erakutsi du bete betean asmatu zutela jai hau antolatzerakoan, herri-tar eta kanpotar askorentzat urteroko derrigorrezko zita izaten da eta.

**- Nola gogoratzen duzu hasierako Maritxu Kajoi jai hura?**

- Oso gauza simplea zen, txikiteoko ohiturarekin bat egitea besterik ez. Batez ere, Txantxoteren irudia kontuan hartuta. Pertsonai hura asko ibiltzen zen txikiteoan eta Maritxuren aurretik pasatzen zen bakoitzean zerbait esaten zion, horregatik bururatu zitzaion norbait jai hau antolatzea.

**- Eta antolaketa egi bihurtzea zaila izan zen?**

- Praktikara eramatea? ez, bilera batzuk eta kitteda. Egia esan hasiera oso simplea izan zen, txaranga bat herrian zehar, loreen kontua, dantzaldia gauean... eta horrela hasi zen.

**- Dirua jartzen hasi zineten?**

- Ez, sekula ez dugu dirurik jarri beharrik izan. Hasiera hasie-



ratik beste finantziabide batzuk aurkitu genituen, eskapularioak lehenik, txanpaina beranduago, tabernarien laguntza...

trajez aldatzeko ohitura dagoela. Gainerantzean ez dut uste jaiak gehiegi aldatu denik, hori bai, hobetu egin da.

**- Askok aldatu da jaiak?**

- Aldatu baino egokitu egin dela esango nuke. Jantzietan bai, hori bai egon dela aldaketa nabarmen nabarmena. Hasiera batean jendeak etxean aurkitutako lehen traje zaharra jartzen zuen edo norbaitek utzitakoa; orain, berriz, jendea askoz ere dotoreago irten da, sofistikatua eta gainera badirudi urte batetik bestera

Lehen urteetan publizitate apur bat egiten genuen, baina orain ez zaigu interesatzen

**- Zertan?**

- Noiz behinka mirariak daude, musika taldeak hobeak dira, kalitate handiagokoa, eta gainera jendetza izugarriak hartzen du parte jai honetan. Dena den, badirudi azken bi urteotan apur bat baretu egin dela jendearen gehiegizko etorrera. Hori onerako dela uste dut, giroarendako jende gehiegi ere ez da onak izaten.

**- Jende uholdearen baretze horrek zer esan nahi du? Maritxu Kajoi maldan behera doan jaiak dela?**

- Ez, ez dut uste behera joango denik. Gertatzen da kanpotik behin edo bitan etortzen den jendeak ezagutzen duela jaiak eta ez da dagoeneko hasieran bezala etortzen, eta hori arrasatearrentzat hobea da. Jai hau asmatu genuenean ez genuen inondik inora espero hainbeste jenderen topaleku bihurtuko zenik. Izan ere, lehen urteetan, jaiak izen bat izan zezan eta inguruetako jendea etor zedin publizitate apur bat ere egiten genuen, baina orain ez dugu batere publizitaterik egiten. Ez zaigu interesatzen kanpoko jendea erakartzerik, herrian bizi garenokin nahikoa eta gehiegi da jai on bat egiteko.

**- Txikiteo zaleen patroia da Maritxu, eta gaur egun ia ez dago txikiteorik...**

- Beno, baina ohitura moduan egun horretan berreskuratu egiten da. Txikiteo orduan arratsaldean jende gehienak edaten du ardoa, gazteenak edango dute zuritua, baina gainontzekoak ardoa. Gainera batzuk jaiak goizean goizetik hasten dute, nahiz eta berez arratsaldean izan.


**- Aurten badago miraririk?**

- Auskalo! horregatik da miraria, jakiterik ez dagoelako.

Maritxu Kajoi egunean girorik jatorrena Kajoiaren izango duzu!

Erdiko kale, 22 • ARRASATE  
Tfnoa: 79 32 27

## Lanean egongo dira



**JULIO AJURIA**  
Papur Okindegia

Maritxu Kajoi bihar-munean lan egin beharko dugu. Goizeko 5etarako hona etorri eta 5.30ak aldera okindegia zabaldu. Lan egingo dudan lehen urtea da, duela gutxi hartu dut negozioa eta esperientzia berria izango da niretzat. Goiz horretan armosetako boiloak, ogia eta denetarik egin eta saltzeko izango dugu. Eta jakina dena gertu izateko ezingo dut juerga handirik egin. Gainera ostiral gauetan 12ak aldera utziko dugunez, trago batzuk hartu eta etxera joango naiz.



**XABIER EZKURRA**  
Laubide aparkalekukoa

Maritxu Kajoi egunean lan egitea tokatzen zait. Gaueko 10ak arte aparkalekuan egon behar dut eta jaleo handia egoten dela esan behar. Ordu horiek txarrenak dira, jendea orduan etortzen da eta kotxez goraino jartzen da aparkalekua. Gaueko txanda berriz, bi lagun artean banatzen dugu bestela oso luzea egingo litzateke hemen bakarrik horrenbeste ordu egotea. Bi urte daramatzat Maritxutan lanean eta ez zait hain astuna egiten. Hala ere, 10etan lanetik irtetzerakoan afaria eta juerga egiteko asmoa dut

## Zenbat kostako da jaiak?

Aurtengo Maritxu Kajoi jaiak 1.700.000 pezetako aurrekontua du. Kopuru horri aurre egiteko beti moduan eskapularioak salduko dira. 4.000 edo 5.000 eskapulario saltzea aurreikusi dute antolatzaileek, eta horrela, 800.000 pezetako diru sarrera lortzea espero da. Bestalde, tabernek eta jatetxeek eman duten laguntzarekin beste 900.000 jasoko dira.


## Aurten txanpain barik

Jai batzordeak aurten txanpainik ez ateratzea erabaki du. Antolatzaileen esanetan, orain dela hamar urte jendeak edaten zuen txanpain, baina gaur egun ohiturak aldatu egin dira eta gutxi eskatzen dute txanpain. Gainera, tabernariak txanpain ezin saldu ibiltzen ziren azken urteotan. Orain dela hamar urte atera zen Maritxu Kajoi denominazioko kaba.



Maritxu Kajoi eguna baino astebete lehenago nahi eta nahiezkoa izaten da bederatziurrena ospatzea. Eta horixe egin zuten hainbat arrasatearrek joan zen zapatuan. Arratsaldeko 6.30ak aldera jende dexente elkartu zen Maritxu Kajoi amabirjinaren azpian ardo goxoa edan eta gazta ederra jateko.

## DISCO-BAR



**Disco-Bar Gurelekuk**  
Maritxu Kajoi jai zoriontsua pasatzera gonbidatzen zaitu.

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE  
Tfnoa: 79 20 29

## elkarkom internet

Europako erakunde eta unibertsitate ospetsuenekin on-line kolaborazioak.

## internet formakuntza

Hasieratik, profesional eta enpresari mailetara.

- Didaktika profesionala.
- Talde murriztuak.
- RDSI konexioak.
- INTERNET teknologia berriak: kamarak, bideoa, musika, 3D, ftp, irc, plugin-ak, tele enplegua...

- Instalazio eta konexioak.
- Web orrialdeen egitea.
- Espazio birtualen alokairua.
- Internet consulting.
- Enpresendako zerbitzuak.

### Elkarkom internet

Nafarroa 17, Arrasate  
Tfnoa: 71 20 30  
E-mail: elkarkom@jet.es  
http://www.elkarkom.com



### Maritxu Kajoi toki berrian

Jakina den moduan, orain dela hilabete batzuk amabirjina tokiz aldatu zen Herriko Plazara begira jarriaz.

Duda barik toki aldaketa horrek ekarriko du abantailarik, orain jende gehiagok ikusi ahal izango du Maritxuri egiten zaion lore eta kantu eskaintza.

## Maritxu Kajoi Batzordea

- Agustin Ibarluzea- *Txingurri atomikue*
- Luis Pagoaga- *Basozaina*
- Ino Calleja- *Kalekumie*
- Patxi Ugarte- *Sikue*
- Alex Zubia- *Patezalie*
- Iñaki Gurrutxaga- *Kantarixe o!*
- Juanito Barberan- *Sekretuzalie*
- Edurne Iraola- *Hotza*
- Nagore Iraola - *Epeltxuau*
- Utzune Urrizalki - *Betazine*
- Onintza Lopez de Munain- *Pataterie*
- Carlos Garcia - *Futbolistie*
- Jabi Casado- *Mutilzaharre*
- Josu Velar - *Naturistie*
- Juan Luis Arexolaleiba- *Tratantie*
- Junkal Perez- *Flamenkie*
- Xabier Letona - *Biajantia*
- Naiara Guridi - *Kapritxosie*
- Luis Axpe- *Apatakue*
- Juan Jose Garmendia - *Sentzillue*
- Aimar - *Arantzalie*
- German- *Aleman*
- Alberto- *Espanarra*

...



# Denda berria

## LEHEN Iturriotz

kalean...

**ORAIN,** Erdiko Kalen zure betiko arropa denda berrian topatuko duzu. Laister zabalik!

# SIRIMIRI

## jantzidenda

*Ondo pasau Maritxuak,  
eta laister arte!*

**Erdiko kale, 42. Tfonoa. 79 64 42 • Arrasate**

# Perretxikotan

## Gero eta jende gehiago joaten da basora perretxikoak bilatzera

Maria Agirre

**Badirudi perretxikoak basoko altxor ezku-tuak direla, eta horiek aurkitzeak jendeari izu-garrizko poztasuna ematen diola. Bestela zelan ulertu perretxikotan joateko dagoen zaletasun handia?**

**Zaletasun hori aspalditik dutenek esaten dute basora gero eta jende gehiago joaten dela perretxikoak bilatzera. Perretxikotan joateak derrigorrez izan behar du ezkutu xarmaren bat.**

### AFIZIOA ETA BIZIOA

Joxe Migel Agirrebeñak, "Zapak", aitortzen du berea bizioa dela. "Gaztetatik dator kit perretxikotan joateko afizioa baina nik esango nuke bizioa dudala. Perretxikoak jateak ez dit aparteko graziazirik egiten, baina otzarakada perretxiko batu eta ondoren jendeari erakustea bezalakorik ez dago".

Ikusten zaio bai bizioa duela, gizonak gozatu egiten du perretxikoei buruz hitzegitean eta. "Aurten Segoviaraino joan naiz perretxikotan eta Araba aldean ere ibiltzen

naiz. Inguruan, berriz, Udalan, Kurtzebarrin, Bedoñan, Degurixan eta beste toki batzuetan aurki daitezke. Baina orain lehen baino perretxiko gutxiago dago. Gauregun jende larregi ibiltzen da basoan perretxikotan eta onak bakarrik hartzen ditu. Onak hartu eta txarrak bertan utzi.

Baina on

batzuk ere utzi egin behar dira, horiei hazia jausi eta berriak haz daitezten. Horregatik, gero eta perretxiko txar gehiago dago. Orain hogeitasei urte Udalan susatoki dexente zegoen baina orain apenas dago. Gainera jendea plastikoekin joa-

ten da perretxikotan eta hori ere ez da komeni. Hobe da otzararekin edo sarezko plastikoekin joatea, horrela hazia jausi eta berriak ermetuko dira eta".

Kezkati baina pozik dago Zapa, izan ere aurtengo uzta



azken urteetako onena ari da izaten. "Aurtengo maiatzean Udalan batu dudan perretxiko adina ez dut aspaldi batu. Perretxiko mordoa zegoen, batez ere gibel urdina. Onddo handiena ere aurten hartu dut, 800 gramo pisatzen zituen".

Zaletu guztiek aitortzen dute sekretuan edukitzen ziren susatokien kontu hori aspaldi bukatu zela. Zapak dioskunez berak ez du isilpean gordetzen perretxikoak non aurkitzen dituen, baina hori bai, beti toki berdinetara joaten da. "Toki jakin batzuk ditut eta badakit horietan beti perretxikoak aurkituko ditudala".

Ondo daki Zapak zer batzen duen, eta horregatik, inor ez da gaisotu berak batutako perretxikoekin. "Dudamudan banago ez dut hartzen. Gainera orain, udazkenean, kontuz ibili behar da perretxikoekin. Maiatzean perretxiko txar gutxiago egoten da, baina sasoi honetan antzerako asko jaiotzen da. Plateria, adibidez, oso sanoa da baina pardiliarekin kontuz ibili behar da eta aspaldi esaten zuten bezala abuztua pasatuta ez da gibel urdinik batu behar. Txanpinoekin ere kontuz, askotan banaka batzuk txarrak ateratzen dira".

Perretxikoa otzarara sartu baino lehenago seguru egotea gustatzen zaio Zapari, eta baita ahora sartu baino lehenago ere.

"Emaztea eta honen aita ere perretxikotan oso onak dira, baina eurek batutakoa jan behar badut



lehenengo ikusi egin behar dut".

Perretxiko asko batutakoa da Zapa, baina sekula ez zaio burutik pasa perretxikoekin dirutxo batzuk ateratzea. "Saldu ditzaket jatetxeetara eta, baina nahiago dut etxera eraman edo lagunei ematea. Gero trukean eurek ere zozter ematen didate eta konforme!".

**PERRETXIKOAK SALTZEN**

David Jimeno, 17 urteko arrasatearrari ere, asko gustatzen zaio perretxikotan joatea baina honek saldu egiten ditu. "Sukaldean gero eta gehiago erabiltzen dituzte perretxikoak, eta horregatik,

hainbat jatetxeetara saltzen ditut. Argiñanok eta Subijanak erosten dizkirate, eta inguru

ruko jatetxeetara ere eramaten ditut. Laster, berriz, Arrasateko azokan jarriko ditut salgai. Asmoa saltzea da, baina jendeak perretxikoak ezagutu ditzan ere lortu nahi dut. Horregatik, jateko onak izan

**O**rain lehen baino perretxiko gutxiago dago. Gaur egun jende larregi ibiltzen da basoan perretxikotan eta onak bakarrik hartzen ditu. Onak hartu eta txarrak bertan utzi"

*Jose Migel Agirrebeña, "Zapa"*

na nondik zabiltzan jakitea da eta. Jendeak askotan ez daki zuhaitzak bereizten, eta arbola batzuetan zaila izaten da perretxikorik aurkitzea. Basoa noruntz norabidetuta dagoen ere jakin behar da. Horrela, guzti hori kontuan izanda beti toki berdinetara joaten zara eta ez duzu denborarik galtzen".

Aurten aitak eta semeak oso denbora gutxi galdu dute perretxikotan. Ez perretxikoak bilatzera joan ez direlako, baizik eta aurten mordoa dagoelako. "Azken urteotan apenas egon da perretxikorik baina aurten desberdina da. Hala ere, azken 40 urteetako uzta onena uholdeak gertatu zirenean jaso genuen. Basora sartu eta segituan aurkitzen zenituen perretxikoak, izugarria izan zen" kontatzen du aitak. Pozik aurtengo urtea ematen ari denarekin baina oraindik zain. "Garai honetan urriaren 4tik 15era bitartean hartzen da perretxiko gehien, ilargia ilberheran dagoenean. Seguru nago ilargiak eragiten duela. Urteak eramaten ditut perretxikoak batzen eta garai hori da onena" esaten du Davidek. Denetarik jasotzen dute Jimenotarrak: onddo zuria, onddo

arren batzen ez diren hainbat perretxiko jarriko dut erakusgai".

Aitarengandik datorkio zaletasuna Davidi. Txikia zenean aitarekin joaten zen perretxikotan, eta hainbat sari irabazitakoa ere bada. Orain urte batzuk, gainera, Espainia mailako saria etxeratu zuen. Baina aitak, Floren Jimenok, dioskunez semea oso burugogorra da eta ez ditu truko gehiegi ikasi nahi izan. "Hala ere berdina da -dio aitak- garrantzitsue-

beltza, gibel urdina, ziza oria... beti ere honako araua ahaztu gabe: "ez baduzu perretxikoa ezagutzen ez zaitez ausartarena egin".

Perretxikoak salduaz dirua egiten duela eta, David sarritan joaten da perretxikotan baina Arrasaten bizi arren gehienbat kanpora jozten du, Enkarterrietara eta

Arabara. Tartean etxerako ere gordetzen du perretxikorik, aita Ruth Gatzaga jate txeko sukaldaria izanik perretxikoekin denetarik prestatzen du eta. "Flanak, puding-ak, zopak, kremak, likoreak, krocketak.... denetarik prestatzen dut perretxikoekin".

**PERRETXIKOekin  
GAISOTU**

Seguru egon behar ei da perretxikoak saskira sartu baino lehenago, baina batzuetan perretxikotan adituak direnek ere hanka sartu eta perretxikoak janda gaisotzen dira. Horixe gertatu zitzaion Pilar Uribarrenen etxekoei, eta ondorioz, ospitalean bukatu zuten guztiek.

Pilar eta bere senarra, Vicente, Besaide egunera parte hartzera joan ziren eta bidean perretxiko batzuk ikusi zituzten. "Bueltan hartuko ditugu pardilla hauek" erabaki eta horrela egin zuten.



**P**ilar Uribarrenek eta bere etxekoek ospitalean bukatu zuten perretxiko txarrak jateagatik. Susto galanta hartu zuen familia honek.

*Argazkian, Pilar Uribarren eta bere alaba Leire*

Etxera heldu eta semea perretxikoak prestatzen hasi zen. Prestatu ahala jaten ei zituzten, hain zeuden onak! Hala ere, pare bat Pilarren anaiarendako gorde zituzten eta anaiak bakarra jan ondoren, perretxiko haiek onak ete ziren eztabaidatzen hasi zen Vicentekin. Senarra seguru zegoen ekarri zituen perretxikoekin baina gutxira Pilarri botakagurea sartu zitzaion eta jarraian alabari eta senarrari. Ondoren, semea etorri zen kaletik hori ere larri samar. Ez zegoen dudarik, perretxiko txarrak jan zituzten eta laurek segituan ospitalerako bidea hartu zuten. Gutxien jan zuenari, semea-ri, bizkor eman zioten alta eta emaztea egun bakarra egon zen ingresatuta. Beste biak, aldiz, bi egunez. Ondoren jakin zutenez, par-

dillen oso antzerakoak diren perretxikoak jan zituzten.


Garagartzako familia honi gertatutakoa ez zen larria izan, baina Pilarrek aitortzen duen

bezala sustoa handia izan zen, eta gorputza asko makaltzen da. Pilarri betidanik gustatzen zaio perretxikotan joatea, basoan galdu egiten dela esaten du senarrak emaztearengatik, baina datorren urtera arte ez ei du perretxikotan joateko asmorik. Eta joaten bada, bi bider begiratuko ei du.



**S**ukaldeen gero eta gehiago erabiltzen dituzte perretxikoak, eta horregatik, hainbat jatetxetara saltzen ditut. Laster, berri, Arrasateko azokan jarriko ditut salgai"

*David Jimeno*





**E**kainean MECAk egindako  
lehiaketan aldameneko jokalariaren  
eta futbol-zelaiaren izena asmatu behar  
zen.

Erantzuna **Justi Bujanda** da..  
Asmatu zenuen?

**A**smatu zutenak eta zozketan  
suertatuak izan zirenak **Josu**



**Belastegi** eta bere  
seme-alabak,  
**Xabier** eta **Olatz**,  
izan ziren. Horrela  
kirol poltsa bat eta  
Ivan de la Peñak  
sinatutako kamiseta  
eta baloia irabazi  
dute. **Zorionak!**

*MECAko langileek Maritxuak ondo pasatzea opa dizuete guztioi!*

# MECA

San Andres auzoa, 8 • Tfnoa: 79 59 99



**RENAULT**



# Urbina Maltzagak lehen partidua etxean

Urbina Maltzaga saskibaloitza taldeak Manresaren kontra jokatu du denboraldiko lehen partidua etxean domekan arratsaldeko 7etan. German Mongen mutilek Tarragona izan zuten aurrean joan zen asteburuan eta arrasatearrek 95 eta 86 galdu arren, itxura ona erakutsi zutela esan behar. Domeka honetako berria, jarraitzaileen aurrean jokatuko duten lehen norgehiagoka izango da. Manresak 84-83 irabazi zion Mallorkari lehen neurketan. Beraz, bigarren garaipena lortzeko asmoz etorriko dira Arrasatera. Urbina Maltzagak ez du erronka samurra izango. Hala ere Sergio Galan pibota sendatu da eta seguruenera jokatuko du beraz jokalaririk horrek laguntza handia eman dezake batez ere barruro jokuan. Bestalde esan behar da dagoeneko



Urbina Maltzaga lehen garaipena lortzeko kantxaratu da.

bazkide kanpaina jarri dela abian. Aurten bazkide txartela merketu egin dute, iaz 8.000 ptakoa zen eta aurten 5.000koa, 14 urtetik 18 urtera artekoak 2.000 pta. ordaindu beharko dituzte eta gazteagoentzat doan. Era berean Debasa enpresarekin akordioa sinatu dutela

esan behar da. Akordioaren diru kopurua iazkoa bada ere, Urbina Maltzagakoek ez dute jakitera eman zenbatekoa den, nahiz eta euren aurrekontuen %50 dela esan. Debasa enpresak Arrasate saskibaloitza taldea babesten duen azken denboraldia izango da aurtengoa.

## Mondrak zapatuan neurketa

Preferente mailako Mondrak eta Lazkao elkarren kontra jokatuko dute zapatuan Aristi Handi futbol zelaian arratsaldeko 4.30etan. Lazkao bi neurketa berdindu eta bakarria irabazi ondoren, bost punturekin sailkapeneko 14. tokian dago. Mondrak lau ihardunaldietatik bi irabazi ditu eta bakarria galdu. Une honetan 7 punturekin 4. tokian dago. Jesus Mari Barrutiabengoa entrenatzaileak partidua gogorra izango dela esan du. Lazkao teknika handiko taldea ez bada ere, indarrean oinarritzen du bere jokua eta zaila da dute defentsa sendoa gaituztea. Neurketa horretarako bost baja izango ditu Arrasateko taldeak: Tolari astelehenean egin zioten rotulako ebakuntza. Callejak eta Zuluetak belauneko giharrak minduta dituzte. Beñat entrenatzen hasita dagoen arren, ez da gertu izango domekarako eta Golok txartel gorria ikusi zuelako partidua bateko zigorra bete beharko du.

## Logrones eta Eibar Aretxabaletan

UDA elkarteak antolatuta, lagun arteko partidua jokatuko dute lehen mailako Logrones eta bigarren mailako Eibar taldeek zapatuan Ibarako futbol zelaian arratsaldeko 5.30etan.



## Igerilariak Donostian


Arrasate igeri taldeko hainbat partaidek Donostia badiako itsaz trabesian hartu zuten parte domekan. Txapelketa gogorra izan zela esan behar. Itsasoa egoera txarrean zegoen eta urak 18 grado baino ez zituen. Dena dela, Arrasateko ordezkari guztiek frogatu ahal izan zuten eta izenen bat aipatzekotan Izadi Mondragonek lortutako 9. postua.

**ITSASKI**

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 98 94



**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

# Mondrako emakume taldeko jokalariak

**A**urpegi berri gutxirekin baina, maila berrian emango diote hasiera Mondrako emakumeek 96-97 denboraldiari. Aurten nazional mailan jokatu du Arrasateko taldeak eta esan behar da maila gorena dela ohorezkoa desagertu ondoren. Beraz, mondragoetarren aurkariak Añorga, Sondika edo Oartzun bezalako talde sendoak

izango dira.

Lehen partiduan Sondika taldearen kontra neurtuko ditu indarrak Mondrak, domeka arratsaldean. Bigarren ihardunaldian berriz, Añorga izango da aurkaria Atxabalpeko anexoan. Horrela bada, Denboraldia hasteko multzoko talde gogorrenen kontra jokatu beharko du Juanina Garaiek zuzentzen duen taldeak.



**Jone Lasagabaster**  
25 urte  
atezaina  
arrasatearra



**Nagore Llodio**  
16 urte  
atezaina  
arrasatearra



**Sokoa Azkarate**  
17 urte  
atezaina  
arrasatearra



**Esti Loiti**  
26 urte  
atzelaria  
arrasatearra



**Iratxe Vazquez**  
24 urte  
atzelaria  
arrasatearra




**Rebeka Ubeda**  
24 urte  
atzelaria  
elgetarra



**Amaia Garcia**  
20 urte  
atzelaria  
atxabaltarra



**Nagore Rico**  
17 urte  
atzelaria  
atxabaltarra



**Larraitz Madariaga**  
17 urte  
atzelaria  
arrasatearra



**Izaskun Heriz**  
24 urte  
erdilaria  
arrasatearra



**Bakartxo Luengo**  
24 urte  
erdilaria  
arrasatearra



**Susana Santor**  
19 urte  
erdilaria  
arrasatearra

**ARROGOI  
TABERNA**

MARITXU KAJOI EGUNEAN GIDORIK ONENA!!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 79 06 40

**ESKIÑA  
TABERNA**

Maritxu nora zoaz? Eskiñara jakina!

Olarte, 25 ARRASATE Tfnoa: 79 20 20



**Agurtzane Lete**  
22 urte  
erdilaria  
bergararra



**Ainhoa Gallastegi**  
18 urte  
erdilaria  
arrasatearra




**Idurre Amozarrain**  
16 urte  
erdilaria  
arrasatearra



**Zorione Aperribai**  
16 urte  
erdilaria  
arrasatearra



**Amaia Luengo**  
23 urte  
aurrelaria  
arrasatearra



**Saioa Baena**  
17 urte  
aurrelaria  
arrasatearra



**Alaitz Perez de Arenaza**  
16 urte  
aurrelaria  
arrasatearra



**Goiatz Zabala**  
14 urte  
aurrelaria  
arrasatearra



**Maite Azkonaga**  
19 urte  
aurrelaria  
arrasatearra



**Juan I. Garai**  
34 urte  
entrenatzailea  
arrasatearra

## Zaldibar txapelketa berriro abian

**M**aritzu Kajoi biharamunean 96-97 denboraldiko Zaldibar Txapelketa martxan jarriko da. Aurten 66 taldek eman dute izena,

iaz baino sei gutxiagok. Jokalariak 1.108 dira. Hala ere, ondorengo bi ihardunaldietan talde bakoitzak oraindik zerrenda jokalari gehiago sartzeko

aukera izango du. Lehen ihardunaldi-ko neurketak zapatu eta domekan jokatuko dira Zaldibar eta Iturripeko kantxetan.

### Larunbata 5 Zaldibar

- 8.50 La mosca Gao - Los Innombrables
- 10.00 DKB - Leya
- 11.00 Sobredosis de Txeira - Kinder Konpresa
- 12.00 Galartza Kont - Lorategi Potroak
- 13.00 Sortu Informatika - MSM Ingen. Integr.
- 14.00 Borrock 'n Roll - Danok Lagun
- 15.00 Kaxi Ganamos - Ojo avisore
- 16.00 Hirei - Orlando Pirates
- 17.00 Diego Antonio - ZZPPW7
- 18.00 Etxe Mobil - Irati STS
- 19.00 Adelaida - Lautherbrunnen

### Iturripe A

- 13.00 Oñaniereng - Betraye
- 14.00 Me la pela - Potrosorri
- 15.00 KK Jaurlaritzari - Sokoakoak
- 16.00 Pepelus - Okoretegi
- 17.00 Anbotoste - Cartonajes Igamo
- 18.00 Baneuko - Aurrera Bolie

### Iturripe B

- 14.00 Berango Sukaldeak - Alai Gozokiak
- 15.00 Perrahotsa - Cerve Leintz
- 16.00 Pipwhis - Abinagraus
- 17.00 Tronkoteak - Iluna Taberna
- 18.00 Naranja Mekanika - Jotakabau.

### Igandea 6 Zaldibar

- 8.50 Los Dimy - Txichtxewtwgoitia
- 10.00 Elisabeth - Ganbelas
- 11.00 Koka Juniors - Nuevo Taberna
- 12.00 Los Heredia - Argi Ibili
- 13.00 Gualtrapas - Ke Oxtias

### Iturripe A

- 11.00 Fosforos - Insert Coin
- 12.00 Bukanak - Txeyenex
- 13.00 AC Surcos - Rotor de Bolbogrado

### Iturripe B

- 11.00 Totem - Arrogoi Taberna
- 12.00 Hapoel Jamon - Motz
- 13.00 Vivas - Kriskibalda

## Kepa Uribarren

# “Tailaginaren ofizioa ikastea oso zaila da, ez dago non ikasi eta”


ARTEk, Arrasateko Tailagin Elkartek, goi mailako taila ikastaroa antolatu du urriaren 5etik aurrera. Ikastaro hori Kepa Uribarrenek emango du, 29 urteko ofizial titulodun tailaginarak. Kepak 17 urterekin ekin zion hasieran afizioa zenari. Gasteizen 3 urtez ikasten ibili ondoren eta ofizial batekin bi urtetan lan egin ondoren, gaur egun goxo goxo daki egurrari forma ematen.

— Badago Arrasaten goi mailako taila ikasi nahi duen jenderik?

— Bai. Hasieran hastapen mailako ikastaro batzuk ematen ditugu eta ikastaro horietan ibiltzen den jendea goi mailakora pasatzen da ondoren. Hastapen mailako ikastaroan oinarritzko eza-gutzak ematen ditugu, hau da, taila geometrikoa. Goi mailako ikastaroan berriz teknika desberdinak ikasten dira, lazoak, eskulturak etabar egiten irakasten dugu. Hastapen mailako ikastaroan baino askoz gauza zailagoak egiten dituzte goi mailako ikastaroko ikasleek.

— Arrasaten tailagin on asko dago?

— Beno, batzuk badaude. Gure tailerlean badira taila egiten ordu asko pasatzen dituztenak. Afizioz lantzen dute egurra baina maila ona daukate. Gainera, gero eta jende gehiagok ematen du izena gure elkartearen, baina egia esan, gauza bat izena ematea da eta bestea tailerrera etortzea. Batzuk oso gutxitan etortzen dira.



— Zu tailagina zara ofizioz. Bizi daiteke tailatik ateratakoarekin?

— Momentuz, bizi naiz. Baina jakina batzutan lan gutxi eta bestetan asko izaten dut, beraz, garai onak eta txarrak izaten dira. Dena den oso gustora nago nire ogibidearekin, betidanik gustatu izan zaidanetik bizitzea lortu dut eta. Niretzat taila pasio bat da, oso

ondo pasatzen dut lanean, ez zait batere kostatzen.

— Ezagutzen duzu zure bidea jarraitu nahi duen arrasatearririk?

— Ez, bat bera ere ez, hemen eta ez eta Gasteizen. Afizioz dabilen jende asko dago baina ez dut profesionalki lan egin nahi duenik ezagutzen. Kontuan izan behar

da tailaginaren lanbidea ikastea oso zaila dela, ez dago non ikasi. Gasteizen Arte eta Ofizioen Eskola dago baina ez da taila bakarrik ikasten eta azkenean, nire ustez, ezer gutxi ikasten da han. Taila ondo ikasteko ofizial batekin lan egitea da onena. Estilokak, konposizioak, teknikak etabar ikasi behar dira eta gaur egun oso ofizial gutxi dago hori guztia irakasteko prest dagoenik, ez zaie interesatzen. Lehen ofizialekin ibiltzen ziren ikasle edo apendizek, ofizialarentzat egiten zuten lan baina orain ofizialei ez zaie errentagarria ikasle bat hartzea. Beraz, taila urtebetez ikasi nahi duenak ikastaro etabarretara joan behar du. Ni beka bati esker ibili nintzen Gasteizko taila ofizial batekin ikasten bi urtetan.

— Zuri nondik datorkizu afizioa?

— Etxean ez da sekula tailaginarik egon, beraz, berez sortu zitzaidan afizioa da. Umetan asko gustatzen zitzaidan egurra lantzea eta begira, azkenean tailagin ofizioa ikasi nuen.

— Zuk zer eskaintzen diezu bezeroei?


— Harmarri modelo desberdinak, estilo desberdineko tailak, adibidez, Luis XV, Luis XVI edo Luis XVIIko estilokoak edota kapiroioak adibidez. Kapiroioak teiltatu azpian egoten diren bigak dira eta jende askok apaindu nahi izaten ditu. Kutzak, markoak, ispi-luak... ere egiten ditut.

“Etxean ez da sekula tailaginarik egon, berez sortu zitzaidan afizioa da”

# Gaitzizenen lana amaituta, liburua nola argitaratu da arazo

**J**ose Angel Barrutiabengoak azken lau urteak pasa ditu Arrasateko gaitzizena jasoz. Udalak 1992an atera zuen bekari erantzunez jaso ditu gaitzizena nahiz eta lehenagotik ere bazituen batzuk bilduta. Orain bere lana amaitu du eta Udala gaitzizena biltzen dituen liburua argitaratu daitekeen aztertzen ari da.

Jose Angel Barrutiabengoak azaltzen duenez, gaitzizenen bilduma argitaratzea buruhauste bat baino gehiago ari da sortzen. Izan ere, gaitzizena duen jende askok ez du bere izena inon agerterik nahi. Udaletxeko Euskara Batzordeak adierazi duenez, Barrutiabengoaren lana argitaratu egingo da eta gainera argitaratzeko diru kopuru bat zuzenduko da aruten. Liburua berriz, datorren urtean aterako litzateke kalera. Arazoa orain, lana nola aurkeztu da. Horren aurrean, pertsonaren identitatea azaldu gabe gaitzizena argitaratzea izango litzateke irtenbiderik onena.



1.100 gaitzizena inguru bildu ditu Barrutiabengoak.

Hala ere, Barrutiabengoak beldur da. Gaitzizena biltzen pasa dituen lau urtetan gaitzizendun bat baino gehiagoren mehatxua jaso du bekadunak. Horren aurrean kontu handiz jokatu eta lana "asko makilatu" behar izango dela dio Jose Angelek.

## 1.100 gaitzizena

Arrasateko dokumentu

historikoak kontsultatu eta hainbat jubilatuekin egon ondoren, 1.100 gaitzizena inguru bildu ditu Jose Angelek. Gaitzizena XV. mendetik 1960. urtera artekoak dira. Barrutiabengoak bere denbora libre erabili du guztiak bildu eta artxibatzeke.

Jubilatuaren laguntza oso garrantzitsua izan ei zaio Barrutiabengoari. Berak azal-

du duenez, jubilatutako etxeetara joan eta aitona-amonei fitxa bat banatzen zien. Hauek euren artean hitzegiten hasi orduko, gaitzizena pila bat ateratzen zuten eta bide batez, aintzinako kontuak freskatzuz arratsaldea tertulian igarotzen zuten. Bere lana antolatzeke orduan berriz, Bartzelonako Hizkuntza katedradun batekin jarri zen kontaktuan. Honek gaitzizenei buruzko liburu bat idatzita zuen eta lana nola bideratu azaldu zion

## Kapituloak

Lana antolatzerako orduan, kapitulotan banatu du liburua: gaitzizena jatorria, klasifikazio semantiko eta estadistikoa, portzentaiak eta abar.

Lana amaitu ondoren, Arrasate gaitzizenetan oso aberatsa dela konturatu da Jose Angel. Dena dela, jaso dituen asko, gaitzizendunaren baseritik datozela ikusi du, hau da, jende asko bere baserriaren izenarekin eza gutzen zen.



## Komunikazioan kontzeptu Berria



### CD-ROM

- Katalogo interaktiboak
- Formakuntza sistemak
- Informazio puntuak
- Liburu elektronikoak



### INTERNET

- Diseinua Web orrietan
- Web korporatiboa
- Produktoen Web-a
- Web-en kokapena



"Enpresan Multimedia  
Aplikatzeko, oinarritzko Gida"  
DOHAINIK. ESKA EZAZU !!

Loramendi, 4 - SAIOLAN Zentruan -  
20.500 ARRASATE - Gipuzkoa -  
Tels.: 943 - 770500 / 790211  
Fax.: 943 - 795701  
Web: [www.danka.es](http://www.danka.es)  
e - mail: [danka@danka.es](mailto:danka@danka.es)

### Gure bezeroak:

DANONA, TAVEX ALGODONERA, FAGOR,  
ZTB, LANA, CAJA LABORAL, eta abar...

DANKA multimedia INTERNET-ean dago ( [www.danka.es](http://www.danka.es) ). Eta zure enpresa ?



z dago denboran oso atzera egin beharrik argazkiak atera zireneko urteetara iritsi ahal izateko. Izan ere, Maritxu Kajoi jaia berez gazte samarra da oraindik. Dena den, jaiaren hiru une

desberdin jaso nahi izan ditugu gaurkoan: goiko argazkia, kuadrila handia- ren, jaiaren aurrekoa da, 1992. urtean ateratakoa;

erdikoak mirariaren ueña jasotzen du, 1990ean Maritxuk 1.000 pezetakoak bota zituenekoa; behekoak, berriz, goiza jasotzen du,

1989. urtean ateratakoa. Ez dezala inork txarrera hartu, baina argi dago denbora ez dela alperrik pasatzen. A z mutiko aurpegiak!


# ETXERAT TABERNA

**ONDO PASAU MARITXU KAJOI EGUNEAN!  
EZ GAUDE DENOK!**

ZURGIN KANTOI, 5 · TFNOA: 79 20 52

# Z E R N A H I A G O ?

## Juanma Berrueta Juanma argazkidendakoa



- Zenbat argazki makina dituzu? Zortzi.
- Zaharrena noizkoa? 76koa.
- Nori egin diozu argazki politena? Ines Sastre modeloari.
- Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan? Zuri-beltzean.
- Nori gustatuko litzaizuke argazki bat ateratzea? Bernardo Atxagari.
- Egin dizuten oparirik politena? Argazki bat.
- Etorri behar zara Maritxura? Bai.
- Dotore jantziko zara? Ziurrenik bai.
- Badakizu dantzan egiten? Ez.
- Aktoresa bat? Victoria Abril.
- Defektu bat? Pazientzia eza.
- Bertute bat? Puntualitatea.
- Izena aldatuko bazenu zein jarriko zenuke? Xabier.
- Asteko egunik onena? Ostirala.
- Zein irakasgai gustatzen zitzazun gehien eskolan? Natur zientziak.
- Praka bakeroak ala pintzadunak? Bakeroak.
- Martins-ak ala nautikoak? Nautikoak.
- Zelako pelikulak gustatzen zaizkizu? Fikziozkoak.
- Erretzen duzu? Bai, pakete bat egunean.
- Inoiz ahalegindu zara uzten? Ez.
- Perretxikoak batzen dituzu? Bai eta leku on asko ezagutzen ditut, baina hori sekretua da.
- Medikuan egon zinen azken aldia? Ez dut gogoan baina gripegatik joan nintzen.
- Gauetan irtetzen zarenean zer edaten duzu? Ron-a.
- Musika bakalau ala rocka? Rocka. Rolling Stones taldea gustatzen zait.
- Noiztik daramatzazu betaurrekoak? 12 urte nituenetik.

## LABURRAK


### Dantza karibiarrrak

Udaleko Gazte Zerbitzuak dantza karibiarren ikastaroa antolatu du. Ikastaroa azaroaren 11an hasi eta abenduaren 11an amaituko da. Eskolak astelehen eta asteazkenean 7.30etatik 9.30etara izango dira Musokolako saloian. Irakaslea Julio Lantigua dantzaria izango da. Prezioa 4.000 pztakoa da, 2.500ekoa ikasle eta langabe-tuentzat.

### Argazki lehiaketa

Urriaren 11an amaitzen da Udaleko Gazteria sailak antolatu duen "Gazteak eta Intsumisioa" VII. Argazki Lehiaketako lanak aurkezteko epea.

Parte hartzaileen artean bi kategoria daude: Deba Garaiko 14-18 urte arteko gazteak eta 19-35 artekoak. Modalitateak ere bi dira: Zuri-beltzean eta koloretan. Lanen berezitasunak beriz honakoak izan behar dute: A kategoriako lanen formatoa librea da baina B kategoriakoan gutxienez 18x24 eta gehienez 30x40 zm.ko formatoa izan behar dute argazkiek. Lanak Udaleko Gazte Zerbitzura bidali behar dira. Erabakia urriaren 18an emango da ezagutzera.



*Ondo pasatu eta  
Maritxunak gorde ezazu  
argazki baten!*

**ARCO  
IRIS**  
KODAK

*Juanma Berrueta*  
ARGAZKI DENDA

Uribarri Etorbidea • ARRASATE • Tfnoa: 77 13 64



## “GAZTEAK ETA INTSUMISIOA”

### VII. ARGAZKI LEHIAKETA

#### **Bi kategoria:**

- A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak.
- B) 19-35 urte bitarteko edozein.

#### **Bi modalitate:**

- a) Zuri beltzean
- b) Koloretan

**Lanak aurkezteko epea: urriak 11**

Informazio gehiago: Gazte Bulegoa 77 00 65



ARRASATEKO UDALA


Gazte Zerbitzua ■



**Etxe Aundi**  
*Hotela\*\*      Jatetxea*



Torrauzo, 9  
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90  
OÑATI



*Gaur ez bada,  
bibar  
ezkonduko  
zara...  
Etxe Aundin  
zure zain  
gaituzu.*



# Luis Lopez futbolari ohiaren erreportaia MondraSporten

Hurrengo astelehenean futbolari handia izandako Luis Lopez "Bomba"ri egindako erreportai interesgarria emitituko da Mondrasporten. Luis Lopezek inguruko futbol taldeetan jokatu zuen, eta baita lehen mailako Malaga taldean ere. Horrez gain entrenatzaile lanak ere bete ditu Mondra, Aloñamendi eta Bergara futbol taldeetan. Erreportaian bere bizitzaren une goxoenak kontatuko ditu.




## ARRASATE IRRATIA (FM 107,7)

### ADIEGON, ostegun gaueko saio berria

Saio berri baten hasiera iragartzen zaigu aste honetan Arrasate Irratian, ADIEGON izeneko. Gazteek egindako eta gazteei

zuzendutako magazina izango da ADIEGON saio berria, beti ere gai baten inguruan antolatuko dena. Saioa ostegunetan entzun ahal izango da, gaueko 9etatik aurrera.



### MENDIZABAL OKINDEGIA

Maritxu ostein, ogia labetik atera berria zuretzat Mendizabal Okindegian.

Maritxu ostein, eguneko ogia, goxoago irudituko zaizu.

Sebero Altube, 2 Tfnoa: 79 89 60 ARRASATE

**ONDO IBILI  
MARITXU  
EGUNEAN ETA  
ZAINDU  
ZAITEZ!**

**HIES EKIMENA**  
Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.  
Tfnoa: 79 26 99

## PROGRAMAZIOA



### 4 Ostirala

20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Maritxu Kajoi albistegi berezia

### 7 Astelehena

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Mondrasport  
Erreportaia: Luis Lopez  
"Bomba" futbolari ohia

### 8 Asteartea

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Mondrasport errep.  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Lotsa Barik  
Gonbidatua: Anuska Lasa

### 9 Asteazkena

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Lotsa Barik errep.  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Musika kontzertua

### 10 Osteguna

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
ATBko programazio berria errep.  
19.10etan  
Kukaratxa Motel  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Kukaratxa Motel

### 11 Ostirala

13.30etan  
Albiste aurrerapena  
13.35etan  
Kukaratxa Motel errep.  
20.00, 20.30 eta 21.00etan  
Berriak  
21.30etan  
Astebete

**Etxebizitzak**

- **Arrasateko gazte talde** bat gara eta lokal bila gabiltza. Edozein egoeratan. Tfnoa: 79 68 75.
- **Etxebizitza alokatzen da Bergaran.** Jantzitza eta telefonoarekin. Tfnoa: 76 59 71.
- **Bilbon pisua osatzeko hiru lagun** behar dira. Tfnoa: (94) 416 93 06. Maribel.
- **Pisu merke bat erosiko nuke** Arrasaten. 6 milioira arte ordaintzeko gertu nago. Tfnoa: 79 39 92. Jabi.
- **Arrasaten taberna salgai edo alokagai.** Tfnoa: 77 14 93. Agurtzane edo Oskar.
- **Pisu bila nabil Arrasaten,** Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Zure pisuan lekurik bazenu dei egin 79 53 00 tfnora. Mikel. (Goizez deitu).
- **Lagun bat behar da** Donostiako Alde Zaharreko pisu bat osatzeko. Tfnoa: 71 45 52.
- **Donostian pisua osatzeko** neska bat behar da. Tfnoak: 79 33 30 edo 79 98 37.
- **Biltegi bezala** erabiltzeko lokala alokatzen da. Tfnoa: 79 20 48.
- **Pisua alokagai San Andresen.** Tfnoa: 79 37 97. Dei egin 1etatik 3etara edo 9etatik 11etara.
- **Lagun bat behar dugu Deustun** pisua osatzeko. Tfnoak: 79 47 15 edo 79 82 91.
- **Pisu bila nabil,** bi seme-alabaz osatutako familia batendako. Tfnoa: 79 42 05.
- **Erdialdean garage itxia alokatzen da.** Prezio interesgarria. Tfnoa: 79 42 13.
- **Donostiako Amara Zaharreen** pisua osatzeko neska bat behar da. Tfnoa: 79 82 47. Amaia.
- **Jendea behar da** Leioako Unibertsitateko inoiez zazpi minutura dagoen txalet baten logela merke bat hartzeko. Tfnoa: 78 31 10.

**Lana**

- **Ingeleseko klase partikularrak.** Tfnoa: 79 02 11.
- **Espesientziadun neska** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Tfnoa: 79 31 44. Mirian.
- **Neska bat behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 33 21.
- **Kafetegia edo jatetxe baten** lan egingo nuke egun erdiz. Tfnoa: 79 23 58. Rosa.
- **Bidaiatzeko gertu dagoen komertziala** behar dugu. Bidali curriculumak 103 postakutxatilara.
- **Neska gaztea gertu** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko arratsaldetan. Tfnoa: 79 77 91. Sonia.
- **Euskaraz edo erdaraz** klase partikularrak ematen ditut. Edozein gai eta maila (OHO, EGB, BUP, COU...). Tfnoa: 79 46 75. Amaia.
- **Austriako familia batek** au-pair bat behar du gutxienez 9 hilebeterako. Tfnoa: 19 10 96. Edurne.
- **Irlanda aupair-a behar da** lehen bailehen. Tfnoa: 77 06 83.
- **Gizarte Laneko ikasle** den neska euskalduna edozein lan egiteko gertu. Tfnoa: 76 64 60. Alaitz.
- **Ingeleseko klase partikularrak** ematen ditut. Talde txikiak eta maila guztiak. Tfnoa: 79 09 11.
- **Ingeles eta ESOKO (OHO)** klase partikularrak ematen dira. Talde txikiak. Espesientzia eta tituloduna. Tfnoa: 79 56 78.
- **Lau urteko esperientzia duen mutila** gertu kamarrera lanak egiteko. Tfnoa: 79 87 40. Aitor.
- **Bulegoak eta etxeak** garbituko nituzke. Dei egin goizez 79 59 76 edo arratsaldez 79 11 14 tfnora.
- **Espesientziadun emakumea gertu** etxeetan lan egiteko edo umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 33 77.
- **OHOko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 21 64.

• **OHO-REM eta BUPeko** klase partikularrak ematen ditut. Tfnoa: 79 06 39.

• **Espesientziadun irakasleak** OHO eta ingelesko klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 68 18. Agurtzane.

• **Euskal Filologiako ikasleak** euskarazko klase partikularrak emateko prest. Tfnoa: 79 94 49. Oskar.

**Salerosketak**

• **Baserrian hazitako artzai-txakurkumeak salgai.** Tfnoa: 79 35 47.

• **Motorrean ibiltzeko larruzko txamarra salgai.** Tfnoa: 77 04 21.

• **Kontsultarako liburuak oso merke saltzen ditut.** 2.000 pta eta oparia aparte. Tfnoa: (907) 22 30 22 edo idatzi Ermuko 181 postakutxara.

• **Zine musika zintak salgai** baita ere gregorianokoa eta musika klasikakoak, Richar Claideman, ABBA... Tfnoa: (907) 22 30 22 edo idatzi Ermuko 181 postakutxara.

• **1.000 pta.tan formikako mahaia salgai.** Neuriak: 85x60 zm. Tfnoa: 79 40 44.

• **BX-GT gorria salgai,** BI-AK. 150.000 pta. Tfnoa: 79 42 65. Andoni edo Konsuelo.

**Denetarik**

• **Lau lagun behar dira** futbito talde bat osatzeko larunbat arratsaldetan Kiroldagian jolasteko. Tfnoa: 79 93 86. Dei egin arratsaldeko 8etatik 9etar.

• **Alkateak ostiralean Abaroa parean** Festina markako erlojua, naruzko korreaz, betaurrekoak, boligrafoa eta Askatasuna galdu zituen. Hasierako hirurak aurkitzen duenak dei dezala 79 09 00 tfnora. Askatasuna...

**Aste Gazte**

**Bekak**

- Euskal Herriko Unibertsitateak Doktorego aurreko ikerkuntza beken deialdia egin du, lizentziatuei zuzendua. Epea: urriak 10.
- Unibertsitate mailako ikasketetarako beka eskatzeko epea: urriak 15.
- Unibertsitarioak ez diren ikasketetarako epea: urriak 18.

**Lana**

- Areatzako udala: liburutegiko begirale/gizarte-kultur suspertzaile bat. Epea: urriak 10.

• Tuterako udala: zuzendaritzan lizentziatu bat. Epea: urriak 10.

• Plentziako udala: aparejadore bat. Epea: urriak 9.

**Begirale ikastaroak**

• Aisialdi begirale titulua lortu nahi baduzu, eskola gehienek kaleratu dituzte ikasturte honetako egitarauak. Gazte Bulegoan kontsulta ditzakezu.

**Dantza ikastaroak**

• Euskal Dantzak, "Lore Gazteak" taldearen eskutik.

Urriaren 18tik abenduaren 13ra. Ostiralero, 7etatik 8.30etara. Matrikula: 1.000 pta.

• Dantza Karibearrak: salsa, merengue, bachata. Azaroaren 11tik abenduaren 11ra. Astelehen eta asteazkenetan, 7.30etatik 9.30etara. Matrikula: 4.000 pta. (2.500 pta ikasle eta langabetuentzat).

**Gazteak eta insumisioa**

• "Gazteak eta insumisioa" VII. argazki lehiaketa. Epea urriaren 11an bukatzen da.

**"Heldu gabeko fruta jateko aroa da gaztaroa eta egundoko tripako minak ematen dizkizute. Zahar-tzaroan, aldiz, heldutako fruta jaten da".**

**ANA MARIA MATUTE,  
"EL PAIS"**

**Informazio gehiago:  
GAZTE  
ZERBITZUA  
Tfnoa: 77 00 65**



# Arrasateko OSASUN GIDA

## DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 .....	☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk.....	☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea.....	☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis.....	☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º.....	☎79 69 45
LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsaldez) Alfonso X. Jakintsua, 5 .....	☎79 17 74
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B .....	☎77 12 63

## DERMATOLOGIA

ROBERTO ZABALA. (Mendia Jauregia) Erdiko Kale, 22-1 .....	☎79 72 16
---	-----------

## FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ....	☎77 03 96
--	-----------

## GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea .....	☎79 20 18
--	-----------

## LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk .....	☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 .....	☎79 48 77

## MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk .....	☎77 06 22
JOSE LUIS ABUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai).....	☎77 01 33

## MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerias, 56-Behea .....	☎79 44 22
--	-----------

## MEDIKU eta ESTETIKA ZENTRUAK

GARE San Vicente Ferrer, 2 behea ARETXABAETA.....	☎79 55 25
---	-----------

## OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 .....	☎79 25 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria)Juan Carlos Guerra, 1 .....	☎79 29 95

## PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 .....	☎79 50 75
---	-----------

## PSIKOLOGOAK

TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 .....	☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 .....	☎79 48 77

## OTORRINOLARINGOLOGIA

ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea.....	☎79 20 18
---	-----------

## REUMATOLOGIA-BIZKARREZUR TERAPIA

GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1.....	☎77 00 40
--	-----------

## UROLOGIA

LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerias, 56 .....	☎79 44 22
--	-----------

**Sofa**  
**leku**

**centro**  
**hogar**  
**MUEBLES**

**a, eme... interiores**



Estilo  
guztietako altzariak  
aurkituko dituzu gure  
dendetan.

Zatoz, eta zuk  
aukeratu!!



**grupo**



**Amuebladora**  
**Mondragonesa**

**a. eme. interiores**, Garibai, 9 - ARRASATE - Tel. 79 15 03

**centro hogar muebles**, Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92

**sofa leku**, Zigarrola, 1 - ARRASATE - Tel. 77 14 92